



Akelarre. Nestor Barrenetxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

bertan


MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Jorge Perez:
«Bizitzak 180 graduko
aldaketa egin dit»



1998ko ekainaren 28a. 5. zenbakia. Lege gordailua: BI-85-98. 125 pezeta.

Santutxuko jaiak ↔ Manolo Legina ↔ Deabru Beltzak ↔ eta askoz gehiago...



Eta honekin bosgarrena!

AURRERA DOA GURE AGERKARIA. ETA GOGORATU ZEUREA ERE BADELA. KAZETARIA, ARGAZKILARIA EDO MAKETATZAILEA BAZARA, NAHIZ ALDIZKARIA AURRERA ATERATZEN LAGUNDU GURA BADUZU...

EZ LOTSARIK, EZ BELDURRIK, BATU GURERA!

HEMEN GAITUZU:

Esteban Pernet, 9. 48004 Bilbo
Telefonoa: 94 473 54 48
E-posta: berton@mail.com



Santutxuko jaiak EUSKAL
ondo pasau euskaraz!

geuk ere lagunduko dizugu



OTXARKOAGAKO EUSKAL TXOKOA

Gure auzoan ekinean
Ikastaroak, irteerak,
kultur ekitaldiak...eta
beste hainbat gauza
antolatzen ditugu

Euskaraz bizi!

Telefonoa: 4121877

- 4 ⇨ **BUZOIA**
IDATZI DIGUTENAK
- 5 ⇨ **BERTORATUAK**
"JAIETAN GAI"
- 6 ⇨ **Beitu!**
GAZI-GOZOAK
- 7 ⇨ **Begia**
- 8 ⇨ **MAHATSORRIA**
MANOLO LEGINA
BEGOÑA TA EUSKERA
- 10 ⇨ **BATU GURERA!**
GARAIZARKO MATSORRIAK

- 11 ⇨ **BERBETAN**
NORA ETA NOREKIN OPORRETAN
- 12 ⇨ **BIBA ALEGRANTZIE!**
SANTUTXUKO JAIK 98
- 16 ⇨ **BAKARKA**
JORGE PEREZ
- 17 ⇨ **MAHATSBERRIAK**
- 20 ⇨ **BERTON DUGU!**
"DEABRU BELTZAK"
- 22 ⇨ **BOTA BA!**
EGUZKILORE MENDI TALDEA

- 23 ⇨ **BIDEAK**
KULTURBERRIAK
- 26 ⇨ **BEGI ZORROTZA**
Komikia
- 28 ⇨ **BEJONDEIZULA!**
LEHIAKETA MUNDIALA
- 30 ⇨ **BURUHAUSTEAK**
DENBORAPASAK
- 31 ⇨ **BERTSOTAN**

berton

ARGITARATZAILEA:

Batana Batu Kultur Elkarte

ERREDAKZIOA:

Aita Pernet 9
48004 Bilbo
Telefonoa: 94 473 54 48
E-posta: berton@mail.com

ZUZENDARIA:

Aitziber Laskibar

ERREDAKZIOA:

Unai Cuevas, Arrate Diez, Urtzi
Urrutikoetxea, Zuriñe Uriarte, Jaione
Letamendia, Itxaso Perez.

ARGAZKIAK:

Iñigo Azkona

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Joseba Barrenetxea, Benito Fiz

KOLABORATZAILEAK:

Joseba Zelaia, Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Edurne Basozabal, Idoia Irastorza,
Igor Martin de Vidales, Santutxuko Bertso
Eskola, Igor Zorrozu.

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA :

Koldo Urrutikoetxea.

LEGE GORDAILUA:

BI-85-98

ALE KOPURUA:

1000

FOTOMEKANIKA:

Argia S.L.

Inprenta:

Antza inprimategia.

Aupa Mahatsorriok!

"Ta futbola, ta futbola, ta futbola...", "Kantsata gaioz daborduko futbolagaz...", "Mundiala akabata be ez dozue pakerik emoten futbol demoniñoagaz".

Ez, ez dou pakerik emongo, ze, behingoan futbolista ona eukin eta aitatu be ez dou eingo, ala?. Santutxukoa da ta, karajo! Ta atara in bide! ta mutileri animau, ta aber futboleruok noz eitten dotzazuen peña bat, merezidu itten dau te, ze ganera fin-fine da mutile. Ganera, Athleticen eun urteak direzela-eta, akordaten zarie Garaigaz? Ba haxe be Santutxukoa zan, bueno, Begoñekoa esaten zeuen berak. Ta oingoan Santutxun (edo Begoñen, ze karajo!) beste figura bat dekou, aurrera ba!

Ganera, kejau baino ez dakizue eiten, ze Bertonen oingoan geuze geidxau be badaoz. Santutxuko jaietako programie, guztidxe dekozue. Txurdinagakoak pasata eta Otxarkoagan aurten ein barik (baie hurrungoan bai, e!) ontxe datoz Karmenak. Parrandistak pozik egoteko moduen, hameka egun festan, San Ferminak baino luziegoak eta etxe ondoan ganera. Zer geidxau gure'zue ba?

Ta entrebistie dator Manolo Leginagaz, haregaz zenbet parranda ein ete direz amen ingeruen? Orduko festak ziren ixetekoak! Tabloutxue ein, ta akordeoie ta panderoagaz jantzan ta kantan ta parrandan kantsau arte. Oingo festen aldien gitxi zen ha dana, baie, ondo pasauuu...

Ta kontu geidxau ondiñokarren. Txurdiñagako koralekoak, ta teatroa eiten daurien Santutxuko batzuk, ta mendira joaten direzan Boluetako beste batzuk, ta barridkek, ta bertsoak, ta kruzigramak ta.... Danerik dao amen ba!

Ba, aber Santutxuko festetan pasetan bazarie Euska Txokoan txosnati ta laguneri esan han daoala *Berton*, ta leiduteko sikieran, ta suskritoarek itten badirez, ogeto! Hala, ondo pasau!

Matxurrin

idatzi digute...

Muntaia polizialik ez, errepresioa ez da bidea.

Azkenengo bi asteetan kolpe errepresibo ikaragarri baten biktima izan da gure ingurunea. Iragan diren Maiatzaren 28an eta 29an bost mahatserritar atxilotu zituen polizia espainiarrak beste sei euskaldunekin batera ETA erakunde armatua finantziaztearen akusaziopean: Begoña Pérez Kapape, Bigarren Ibarra Izurieta eta Inma Berriozabal Berna Santutxun; Juan Pablo Diéguez Gómez Bermeon eta Jose Gorostiza Salazar Benidormen.

Atxilotetak gertatu eta berehala komunikabide gehienek aldetik oihartzun ikaragarria ematen hasi zitzaion berriari, ekintza polizialaren beste garaipen bat gizarte osoari salduaz. Era berean, alderdi politikoen ordezkariak ildo beretik jo zuten operazio polizialaren garrantzia azpimarratuz, atxilotetengatik poztasuna adieraziz eta kolpe berri bat eman izan zaiola modu honetan ETA erakunde armatuari. ETAREN aurkako borrokaren beste dimentsio batetan sartuak direla aipatu zuen Mayor Oreja barne ministrariak, eta hain zuzen hori da operazio honekin egin nahi izan dutena, errepresioaren beste dimentsio batetan sartu eta mahai nazionalarekin egin zutenarekin jarraitu: ezker abertzalearen egituretan lan egiten dutenak kartzelan sartu, muntaia politikopolizialen bitartez. Gure auzokideak tortura bermatzen duen

"lege antiterroristaren" biktima berriak izan dira, azpimarratzekoa da konfidantzazko abokaturik gabe deklaratu behar izan dutela, horrela atxilotu orok duen oinarritzeko eskubide bat bortxatuz. Lauzpabost egunez egon ziren inkomunikatuta polizia espainiarraren eskuetan lehen-dabizi eta Garzón epaileak



itzu-razko operazio honi jarraipena emanez beraien gartzelaratzeko inkomunikatua agindu ondoren, batzuei aste bete baino gehiagoz luzatu zitzairen inkomunikazio egoera hori. Gertaera hauekin garbi gelditzen da zein den estatu espainiarreko "Estado de Derecho" delakoaren osasuna, demokrazia batetik urrutiago baitago, Argentinan 1976an Jorge Videla generalak inposatu zuen egoratik baino.

Honekin batera ezin ahaztu, ekainaren 5ean ostirala, Ertzaintzak Gernikan burutako operazio polizial baten ondorioz Inaxi Zeberio Arruabarrena Lizartzarraren bizitzarekin akabatu zuela. Hilketak berri hau dela eta Santutxuko auzoan izandako istiluetan

parte hartu omen zutelako Lorena Couceiro eta Alberto Arenal mahatserritarrek gartzelaratu zituzten, nahiz eta ez egon inolako frogarik bi gazte hauen aurka eta atxiloteta hauek istiluak amaitu eta denbora batetara praktikatu. Epaileak sinesgarritasun handiagoa eman zien frogarik ez zuten ertzain batzuei atxilotutakoei baino. Berriz ere, istilu gogorrek daudenean, arazoari heldu behar zaion moduan heldu behar, errudunak bilatu eta zigortu egiten dira, eta euskal gazteria da prezio garesti hau ordaindu egiten duen kolektiboa.

Argi dago Euskal Herria deklaratu gabeko salbuespen egoera batetan murgilduta dagoela, ez bakarrik azkenengo atxilotetengatik bakarrik, baizik eta PPK azkenengo bi urteetan eraman duen politika errepresiboak argi utzi duelako zein den estatuaren apustua Euskal Herriarekiko. Duela aste gutxi azaldu ziren inkesta batzuetan argi gelditu zen PPK daraman politikak ez duela Euskal Herriko biztanleen gehiengoaren adostasuna, eta hain zuzen gehiengo horrek elkarrizketa eta negoziatioaren alde agertzen dela gatazka poli-tikoarekin amaitzeko. Errepresioa ez dela bidea garbi dago beraz, sufrimendua luzatzeak ez dauka inolako zentsurik, jezari gaitzen bada mahai baten inguruan eta konpon dezagun arazoa.

Santutxuko Amnistiaren Aldeko Komitea

kolaborazioak

Jaietan gai

Iñaki Aurrekoetxea

Nortasun bako egunek ahaztu ta Sangutxun pañelue ipinteko. Nagitasuneri atek itxi ta txosnak tertzioz zabalduko. Metroak dakarzen kanpotarrari ongi etorrie emon ta lehenengo tragoa pagetako. Kuadrillea batu ta soka-tiren eiteko, irebazteko urrerik ez badau be, umorerik sikeran ez galtzeako. Gasoline neurrien hartu ta neurri bako parrandea botateko (hori bai, kondoie eroan). Berba biten, joan dan urtekoa ahaztu ta Santutxuri jaietako trajea jatzeko gai. Kapazak izingo ete gara? Ez dekot bape duderik. Aurten, orduen, barriri bueltauko gara normaltasunera. Bueno, oker nabil. Anormaltasun anormalen osteko anormaltasunera. Egie esan, inoz



baino auzotar gehau faltauko dire jaietan (lerrook idazteko momentuen ondino e'nabe atxilotu, baia nok daki loterie tokauko jaten) ta hori bai ezin dogule ahaztu, ezta denporea galdu, bestela be nahikoa galtzean dogu te. Kapazak izingo ete gara?

Beste anormaltasun batzuk normaltasun itxurea daukie. Lortuko ete dot, batengoagaitik, Santutxuko Karmenak espainolez berba bat ein barik pasetea? Kostako jat.

Azken gauzea. Oingoan be Jai Batzordeagaz ikusi gura zaituet (gogoan eukikozue ihezko "...Jai Batzordeagaz gauz ala ezkauz!..." ezta?). Danok gara parte ta danon babesa behar dau. Batek daki nondik bota leikiezan harriek aurten!

bertin

KOMERTZIALA BEHAR DUGU

Interesatzen bazaizu jarri kontaktuan gurekin, telefono honetan:

94 473 54 48

ANGEL

HARATEGIA -URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6 Tfnoa: 412 48 59

DAYTON

Reagge-festa taberna

Santutxuko poteo gunean

Kafe ANIZO KIA

1998ko UZTAILA

- | | | |
|--------------|-------|---|
| 02 osteguna | 22:00 | LIQUID CRUNCH TOWER |
| 03 ostirala | 22:00 | CANTA U POPULLI CORSU
Korsikako kantari taldea |
| 07 asteartea | 20:30 | LOS 5 BILBAINOS
Athletic-1 omenaldiko diska aurkezten |
| 09 osteguna | 22:00 | JAMILA
Cubako "Puro filin" |
| 10 ostirala | 22:00 | TIJUANA NO
+ Aterciopelados |
| 16 osteguna | 22:00 | EKON
Arrasateko rock taldea |
| 23 osteguna | 22:00 | SOUL BUSINESS
Soul gaua |

San Vicente 2 48001 BILBO
Tel: 424 4625 Fax: 424 2802

gazi-gozoak



Gustu gazi eta garratza utzi digute euskaltzaleoi azkenekin gertatutakoek. Euskara polemikagai bihurtu guran dabilta asko eta asko, Euskal Herritik kanpotik sarri askotan. Garzon epaileakeginekoa dugu azkentako bat. AEK-ko kide bat atxiloturik, berau atxakiatzat erabili du AEKren kontu guztiak bahitu eta gelditzeko. Euskal Herri osoan euskara ikasi gura dutenei lagunduz eta euskara bera suspertzen dabilen erakundearentzat kolpe gogorra eta parada ona euskararen gainean hegan dabilzan hainbat putreentzat. Euren atzaparrak zorrozuta erakunde honen gainera salto egin dute inongo froga barik kaka bota eta botatzen. Isil-isilik geratu dira, oster, AEK-k inongo errurik ez duela ikusita. Edozelan ere, lanean aurrera segitzea da onena, eta honela ulertu dute gure inguruan ditugun AEKren hiru zentroek, Santutxu, Otxarkoaga eta Zurbaraneko Sarri euskaltegia, 700 ikasle ingururi eskolak ematen segituz.



Sasoi txarra euskalgintzarentzat nonbait, baina gogorragoak ere izan dira. Eta hala azaldu ziguten Santuskaratxuren barruan Joseba Arrieta, Patxi Uribarren eta Martin Basterrak. Ekainaren 4ko mahai inguruan Santutxuko euskalgintzaren urteetako lanaren berri eman ziguten. Orduko kontu batzuk entzunda, miresentzen baino ezin da sortu eurak eta eurak lako hainbat euskaltzalek egineko behar itzelarekin. Gustu gozoa utzi ziguten, eta gustu bereko saria merezi dute urte gogor eta luzeetan jardun duten guztiak. Izan ere, haiengatik izan ez balitz gaur egun asko eta asko ez ginen euskaldunak izango. Eskerrik asko haiei, eta aurrera begira guztiok.

Estraineko gauza,
zeharo alpertu.
Jatearekin soilik
nor da gaur kontentu?
Asmatu behar ditut
makina bat santu,
egutegia festaz
erabat gorritu.

Bernardo Atxaga



Argazkia: Iñigo Azkona.

Hartu bertan etxean! egin harpidetza!

bertan Harpidetza txartela

Izen abizenak.....
Kalea: zenbakia:..... solairua:
Herria: Posta kodea:
Telefonoa: Banku edo aurrezki kutxa:

Kontu zenbakia:
Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

11 zenbaki urtean
 1.000 pezeta gehiago: pzta.

BETE TXARTELTXO HAU ETA BIDALDU HONA:
Berton aldizkaria. Pernet 9.
48004.Bilbo. Bizkaia

Sinadura:

MAHATS ORRIA

Mahatserria zana, dana eta izango dana

Manolo Legina:

«Ene mutillek! Ni gaztetxua nazela, lau edo bost urte euki orduen edo, musika bandea etorten zan.»

Arbolantxan eta Begoñako nagusien artean nok ez dau, Manolo Legina trikitilaria ezetuten?. San Justo egune edo Justugune laster dator eta lehengo jai eta erromerien gainean zeozer jakin gurean, Atxeta baserrira joan gara. Manolo trikitixa jotzen ez dagoanean, baserrien egoten da gehienetan. Bere arotz ofizioa ez dau ahiztu ondiño eta ortuko beharrakaz batera, hor emoten dauz bere jubilaziñoko ordu piloia.

☞ Koldo Urrutikoetxea

Berton.- Non edo nogaz ikasi dozu soinua jotzen?
M. Legina.-Inogaz bez, hamen etzien, lantzien baten preguntetan bateri hau zelan itten da. Aita difuntuak fandroa jotzen euan eta agoko filarmonikea bebai eta neuk afiziñoa euki dot.

Berton.- Non jotzen zenduen?

M. Legina.-Urteatan egon nintzen Karrantzan plazan txaranga bategaz eta gero egon nintzen Ondarroan eta azidente bat euki genduen Igorretan harantz goazela, an Igorretako zubidixen krutzau jakun aurretik, handik honantzako auto bat eta blausta! eta orduen ya lotu giñen orkesta barik.

Gero hasi nintzen Txilibrinegaz, Gero Casa Vascan egon nintzen 18 urte edo.

Arotzetik gero Palankara jotzen nintzen soinua jotzen eta han jaten genduen bokadillue.

Txilibrin oin hasarratute dau neugas, len be egon gintzen urte batzuk separaute. ¡Con Legina no se puede ir a ninguna parte, ese no se cansa de tocar ni se aburre, hay que marchar, hay que dejarle! eta etorri ez.

Berton.- Eta hemen zer egiten zen?

M. Legina.-Hemen San Justo iten zen, hor egoan ermitia.

Berton.- Zelan esaten zeuntzien egun horri?

M. Legina.-Justugune. Hor iten zen piñuek bota dauezan lekuan, txaleten aurre aurrean. Gero iten gendun hemen gure portalien kendu aurretik eta gero hasi ziran Marrageron.



Aire Manuel!

Berton.- Justugune urte askotan ezetu dozu zuk?

M. Legina.-Ene mutillek! Ni gaztetxue nazela, lau edo bost urte, Bilboko musika bandea etorten be ezetu dot, Begoñekoa ixango zen orduen.

Berton.- Eta zuk askotan jo dozu?

M. Legina.-Ene mutillek!. 40 urte edo bai, lenengo bakarrik eta gero Tinbre Gorostiagagaz, areaz ibiltzen nintzen lantzien bein, gero holango txaranga bateaz ibiltzen nintzen hor eta gero Txilibrin ta ibiltzen gintzen batera.

Berton.-Begoñako plazakoak eta Artxandako San Rokekoak be ezetuko zenduzan ba.

M. Legina.-Buena nik e berrogeien bat urte bai ixengo dire jotzen neuala Andra Maritan. Jotzen zan txosnatan, orduen Zabalbiden gustidixen egoten ziren txosnak gu bizi garan ingeruan hasi eta Begoñararte, han kailean. Txosnan konture jotzen genduen, propiña emoten euskuen eta. San Roken gitxiago jo dot nik, ezeuren

itxiten ta han ingeruen.

Berton.-Eta Larraskitun euki dozuz hartuemonak?

M. Legina.-Larraskitun asko

Berton.- Non jotzen zenduen San Roken edo beherago?

M. Legina.-San Roken eta gero gaubean itten zen Bentabarrin baia goxian egunez iten zan goien San Roken. Erromeri polite iten zan San Roken eta gero Aberri egunean edo bebai iten zan. Han egon nintzen soiñue jotzen holakoxe egun baten eta umeak han olgetan eta bedar metara salto itten eurien han goitik eta hantxe hil zan neu hantxe neuela eta suspendidu zan erromeria.

Berton.- Kantak eta zeintzuk jotzen dozuz?

M. Legina.-Betikoak eta barriek eta al dana, Matxalen Busturiko, Andre Madalen eta

Berton.-Eta umeen kanten letrak edo gogoan dekozuz?

M. Legina.-Hori.., zelan da..Aitite joan da Bitoriera, amama lepoan hartute, aitite etor da Bitorietik, amama bidian galdute

Berton.- Urte barritan eta kantaten zenduen?



Atxeta baserria

M. Legina.-Bai, Urte barri txarri belarri, dekonak eztekonari nik eztekot eta niri..

Eta gero erregetan .-Ha palazio saldune/, hiru erregen egune/, Martinaren kontuek/, Martina arek agindu doskus hiru ollanda katuek/, aren azurrek batu ezinik, guk emon du saltu bet. Tintilin tañe hiru montaño/, intxurtxu bi ta hiru kastaño.

Berton.-Eta zeozer emoten eutsuen?

M. Legina.-Txokolate zati bet, haxe honena zan..ogi andi emoten zan ta txokolate txikerra.

Begoña ta euskerea

☞ E. Basozabal, I. Gaminde, I. Irastorza eta I. Martin de Vidales

Bagilean gagoz, natura inozko jantzien dogu inguruan, gitxi falta dogu! Aspaldiko Euskal Herri ispiritista honetan, oporren ispiritua bere hegalkatu jaku, hedoi guztien azpitik eta azterketa guztien ganetik bada bere. Horrek ispirituorrek San Juan bezpera gauean, eguna luzatu gurean edo, egon arazoko deusku belurartean. Atzera suaren gainean saltuka ibiliko gara eta Begoñako txokoren batean barrin entzungo ahal da:

«San Juan bagile, sapoak eta subiek erre, artoa eta garidxe gorde»

Hau ekanduau aitzinerik datosku eta bazter guztietan zabaldu jaku, oraindinokarrean bizi bizirik dagoana ezin ukatu lei. Kristauak, beste askotan legez, beronegaz jauekindu dira; ha eta guzti bere, egiten izan direanak eta egiten direanak zahar sunda dariola dagoz. Sugeak eta zapoak galduteko irak ekarten izan dira. Kantuak eta bertsoak okolu askotan gorde dira. San Juan aretxa esaten izan jako lizarrari Begoñan. Beronen abarrak edo kimak lorakaz batera soloetan ipinten izan dira sorginak eta ispiritu dongeak uxatuteko. Beste

batzuetan eguzki-lorea atean edo ganetan ipinten izan da. Zer dela eta eguzki-lorea? Hau ez da atzo goizekoa!. Mihin gaizto batzuek dinoe ze, Venus jainkosa, jainkoretan ederrena, Vulcanoren andrea zan arren, Martegaz gustatu eta beronegaz alkartuten zala gabetan. Horreek alkar hartuteok jagotekotzat, Marteren Alecrion uzeneko morroiak sorotzi behar izaten eban inok eurok harrapatu eziteko. Gau baten baina, Alecrion loak hartu dau, Apolok urten dau eguzkiaren bidea gidatuten eta eguna zabaldukeran Marte eta Venus ikusi dituz euren egitekoetan diharduela. Karraka Vulcanori emon deutso horreen barri eta hantxe harrapatu dituz jainko-jainkosa guztien aurrean lotsagarri izteko.

Martek zigortzat landara bihurtu dau Alecrion eta madarikatuta, ordurik hona eguzki altzatu eta ostu artean beti egon behar jako adi. Hori landara eguzki lorea da, baserri etxe askotan San Juan bezpera gauean ateburuetan ipinten dana, zemai egiten deuskuen sorgin barriak uxatuko ete dituz?

Garaizarko Matsorriak



Emakumeen abesbatza kantari

Arrate Diez

"Garaizarko Matsorriak" abesbatza Txelu Etxebarriaren zuzendaritzapean diharduten koro bi dira, gizonezko eta emakumezko koro banatan.

1986. urtearen hasieran abesbatza honek bere lehen urratsak eman zituen. Begoñako nekazal eta abeltzainen kooperatiba etxeetako lokaletan. Bertan Txelu Etxebarriaren zuzendaritzapean Agate Deuna Abestu zuten.

1987an hainbat aldiz bildu zen euskarazko abestiak kantatzeko, eta 1988an hogeita bost ahots baxuz osatutako abesbatza eratu zuten. Urte honetan GARAIZARKO LAGUNAK izenarekin abestu zuten lehen aldiz, San Isidro Labrador auzoko jaietan hain zuzen ere. Kontzertua, meza eta sailduaren proze-sioaren ondoren eskaini zuten auzo honetako lokaletan. 1990. urtean kontzertuak egiteko irteerak gehitu egin ziren, Besteak beste Barrika eta Atxuriko asiloetan egindakoak



Gizonezkoen koroa Begoñako eleizan

aipa daitezke. Urte honetan auzoko emakumeek ere parte hartzea erabaki zuten eta euren abesbatza osatu zuten hogeita bost ahots zuri-heldurekin. Hurrengo urtean lehenengo aldiz abesbatza biek batera kantatu zuten Nabarnizko eleizan. Handik aurrera koroa sendotu egin da Areatzan, Sondikan, ibilaldietan, eta beste hainbat lekutan kontzertuak eskaini. Horren ondorioz, 1994ko urtarrilaren 27an GARAIZARKO MATSORRIAK izenarekin elkarrekin osatu zuten. Urte bi beranduago, Bizkaiko Abesbatzen Elkartearen barnean sartu ziren "GARAIZARKO

MATSORRIAK elkarte" izenarekin. Eta 1997ko udaberrian "Udaberriko kontzertu"etan parte hartu zuten estrainekoz, Gueñes, Algorta eta Gernikan kontzertuak eskainiz.

1997-1998 denboraldian, eta Txelu Etxebarriaren zuzendaritzapean honako leku hauetan abestu dute:

■ Urriaren 11n Begoñako batzokian kantatu zuten.

■ Azaroaren 29an Begoñako Karmelon abestu zuten Santutxuko Familia Elkartearen eskutik.

■ Abenduaren 14an Barrikako asiloan.

■ Abenduaren 19an Txorierriko XII. Koralean Gabon Kanta jaialdian parte hartu zuten, eta urtarrilaren 5ean Derion ere kantatu zuten XII. jaialdi horretan.

■ Otsailaren 3an lehenbiziko aldiz abestu zuten Begoñan egindako Bizkaiko XXV. koral astean.

■ Otsailaren 4an, ohizkoa den legez, Agate Deuna kantatu zuten Begoña, Alde Zaharra eta Santutxu auzoetan.

■ Martxoaren 25ean Birjinetxeko elizan abestu zuten.

■ Apirilaren 24ean bigarren aldiz udaberriko kontzertuetan parte hartu zuten Izurtzan.

■ Maiatzaren 16an Birjinetxeko eleizan udaberriko hirugarren kontzertua eskaini zuten.

■ Maiatzaren 30ean Sondikan abestu zuten Sondikako koralearen zuzendari ohiaren 3. urteurrenean.

bertan

I N K E S T A
nora eta norekin

joango zinateke

Oporetan?



Josune
Txurdinaga

«Uda honetarako dudana plana atsegin dut. Gijonera noa gimnasiako kurtsilo bat egitera.»



Maritxu
Santuxu

«Lagun bat hartu eta Indiaraino joango nintzateke.»




Marcos
Txurdinaga

«Mundakara joango nintzateke nire emazte eta seme-alabekin.»



Luisa
Txurdinaga

«Dublinera egingo nuke bidaia, nire mutilarekin.»




Jon
Begoña

«Atzerrian egon naiz noizbait eta Euskal Herrian egoten da hoberen. Elantxobera joango nintzateke, neska batekin seguruenik, bestela bakarrik. Egoeraren arabera erabakiko nuke hori.»



Agustín
Begoña

«Cubara joango nintzateke senideren batekin.»



Hector
Txurdinaga

«Nik kotxea hartu eta edonora joango nintzateke, heltzen naizen tokira.»



Jesus
Otxarkoaga

«Venezuelan dagoen Cartagena de Indias irla ezagutzea gustatuko litzaidake, beti ere kuadrila ondoan izanda.»

Santutxuko Jaiak

Uztailaren 16an Karmeneko Amaren eguna, arrantzaleen patroia besteak beste. Itsasoa urrun dago Santutxutik, eta portuak, Iturribide, Zabalbide eta Olleriaseko "mendi-portuak" baino ez. Hala ere, eta errekarik ere ez dagoen arren Karmenak dira Santutxuko festak. San Ferminak baino luzeagoak eta bertokoagoak duda barik, onerako nahiz txarrerako. Hona hemen aurtengorako Sangutxu eta bere lagunak ekarriko dizkigutenak (norberak momentuan antolatzen direnak izaten dira politenak hala ere...).

11, LARUNBATA

15:00etan:BAZKARIA Basarraten, postre lehiaketa. Bazkaldu ostean joku bereziak.
20:00etan:SAMA SIKU FANFARREA auzoan zehar. **20:30etan:**Karmelo plazatik hasita SEGIZIOA, **SANTUTXUKO TXISTULARIAK** eta **SAMA SIKU** FANFARREekin.
21:00etan: PREGOI sorpresa, TXUPINA eta IKURRIÑA Basarraten.
21:30etan:Txosnak zabalduko dira. Non dago Sangutxu?
 Jai Batzordea Feriara joango da.
23:00etan: Basarraten, BERBENA ARKAITZ taldearekin. Berbenaren atsedendian Karmelotik abiatuta: KALE ANTZERKIA.

12, IGANDEA

09:00etan: Diana **SANTUTXUKO TXISTULARIEKIN**. MENDI MARTXA Santutxu inguruan dauden mendiak bisita egitera.
10:00 etan:BIZKAIKO **GAITEROAK** auzoan zehar
10:30etan:HOCKEY PARTIDUA kiroldegian.
13:00etan: IPARRALDEKO HERRI KIROLAK Karmelo plazan.
19:00 etan «GAZTEDI» **DANTZARI - TALDEKO** gazteenak Hockey pistan.
DUNBOTS FANFARREA auzoan zehar
20:00 etan BERBENA CAMP Basarraten, **ALMEN** taldearen eskutik. Non dago Sangutxu?
21:00 etan ANTZERKIA Zonan, **LOCO BRUSCA PRODUCTIONS** "Spearman & his friends" taldearen eskutik.
13, ASTELEHENA
10:00 etan FUTBITO txapelketa Hockey pistan. **16:00 etan** FUTBITO txapelketa Hockey pistan.
17:00 etan Mus, Tute, briska eta Partxis txapelketak Basarraten.
19:00 etan: UMEENTZAKO BERBENA

Karmelo plazan **TXANGOREN TXARANGA** taldearekin.
ZEZEN MEKANIKOA Arsuagan. Non dago Sangutxu?
20:00 etan **BIZKAIKO GAITEROAK** auzoan zehar kalejiran.
23:00 etan ANTZERKIA, **DEABRU BELTZAK** eta **INKIETO taldeek IBILTARIAK aurkeztuko dute..**

14, ASTEARTEA

10:00 etan FUTBITO txapelketa Hockey pistan.
12:00 etan Koadrilentzako UR OLINPIADA Basarraten.
13:00 etan PAELLA LEHIAKETA Basarraten.
14:00 etan PAELLEN aurkezpena.
15:00 etan BAZKARIA Basarraten.
16:00 etan FUTBITO txapelketa Hockey pistan.
16:30 etan KAFE TERTULIA Basarraten. **17:00 etan** Mus, Tute, Briska eta Partxis txapelketak Basarraten.
18:00 etan FUTBOLIN eta PING-PONG txapelketa Arsuagan
18:30 etan Panelak egongo dira GRAFITIAK egiteko.
19:00 etan PAILAZOAK Karmelo plazan.
 Koadrilen arteko HERRI KIROLAK Ritxin. Non dago Sangutxu?
20:00 etan Artagan Kultur Elkartearen **MIKEL URDANGARIN**.
21:00 etan **FEMINA EXTREMULA** ANTZERKI taldea Basarraten.
22:00 etan AUZOKO TALDEEN KONTZERTUA Basarraten, **RADICAL BLUES**, Kontzertuaren atsedendian Gazte Asanbladak antolatutako KALEJIRA. Kontzertua bukatu eta gero FILMINAK.

15, ASTEAZKENA

10:00 etan FUTBITO txapelketa Hockey pistan.
16:00 etan FUTBITO txapelketa Hockey pistan.
17:00 etan Mus, Tute, Briska eta Partxisa Basarraten
19:00 etan Karmelo plazan **KUKUBEL** antzezlanak
KUKUBILT Oren eskutik. Koadrilen arteko GINKANA Basarraten. Arsuagan ARTE MARTZIALen ikustaldia.
 Non dago Sangutxu?
20:00 etan BERTSOLARIAK Basarraten. Unai Iturriaga, Joseba Irazu, Estitxu Arozena, Oihane Enbeita. Gai jartzailea: Arkaitz Estiballes
20:30 etan Basarraten KRISTON MERIENDA.
21:00 etan ERROMERIA TRIKITAKE taldearekin Basarraten.

16, OSTEGUNA

10:00 etan FUTBITO txapelketa Hockey pistan.
 Goiz osoan zehar KARTEL ERAKUSKETA Iturriaga kalean.
 Karmelo eleizaren inguruetan GRAFITI LEHIAKETA, paperean noski!
12:00 etan SUHILTZAILEEN BITSA Karmelo plazan
15:00 etan Basarraten BAZKARI INTSUMITUA
17:00 etan Mus, Tute, Briska eta Partxisa Basarraten.
 Arsuagan 3x3 SASKI BALOI txapelketa.
18:30 etan LABURMETRAI emanaldia.
19:00 etan TURU TARRA FANFARREA auzoan zehar. Non dago Sangutxu?
20:00 etan **SANTUTXUKO TXISTULARIEN** kalejira.
20:00 etan Intsumisioaren aldeko Kalejira.
 Kalejira ostean ANTZERKIA, **NI ULRIKE MEINHOF (Dario Foren monologoak)**.
21:00 etan LARRAIN DANTZA Basarraten.
22:00 etan PLAY BACK txapelketa Basarraten.
23:00 etan AKELARRE BEREZIA Karmelo Plazan, **TXATUNGA BENBE** taldearen laguntzaz, eta beste zenbait sorpresa.

17, OSTIRALA

MOZORROA JANZTEKO EGUNA, DENOK ARRANTZALE JANTZITA.
10:00 etan FUTBITO txapelketa Hockey pistan.
12:00 etan BIDE HEZKUNTZA arratsaldeko zortziak arte Kiroldegia aurrean dagoen plazan.
17:00 etan Mus, Tute, Briska eta partxisa basarraten.
18:00 etan TXARLA INFORMALA Basarraten, **JAIK BAI ERASORIK EZ**.
18:30 etan LABURMETRAI emanaldia.
19:00 etan Non dago Sangutxu?
20:00 etan **SANTUTXUKO TXISTULARIAK** eta **BIZKAIKO GAITEROAK** auzoan zehar.
20:30 etan ANTZERKIA Karmelo plazan.
22:00 etan Rock KONTZERTUA, IILT eta FLITER taldeekin.
 Atsedendian, **ERASOEN AURKAKO KALEJIRA ZARATATSUA**.

18, LARUNBATA

09:00 etan Diana **SANTUTXUKO TXISTULARIEKIN**.
10:00 etan **BIZKAIKO**

GAITEROAK auzoan zehar. FUTBITO txapelketaren finalak eta, ordu batak harte.

13:00 etan TXISTU KONTZERTU BEREZIA Karmelo Plazan.
15:00 etan HERRIRA PLATAFORMAK antolatuta, **BAZKARIA** Basarraten.
19:00 etan ARDOA BARRURA FANFARREA auzoan zehar.
 GIZA FUTBOLINA Arsuagan.
20:00 etan "GAZTEDI" DANTZARI-TALDEKO nagusiak Hockey pistan.
23:30 etan Berbena **URGABE** taldearekin Basarraten. Berbenaren atsedendian **BRINDISA** eta **PRESOEN ALDEKO KALEJIRA**.

19, IGANDEA

09:00 etan BAKAILAO txapelketa Basarraten.

JON FOLLA: Santutxuko Jai Batzordea

Itxaso Perez

Berton: Noiz izango dira aurtengo jaiak?

Jon: Beti bezala uztailean, 11tik 19ra. Basarraten gunen nagusia egongo da, baina beste lekuetan ere ekitaldi eta ekimen ezberdinak egingo dira. Adibidez, Karmelon umeentzako ekitaldiak egingo dira, gune hau umeentzat erreferentzia izatea nahi da eta. Beste gune ezberdin bat Zona delakoa izan daiteke, baina ikusteko dago oraindik.
B: Jai Batzordean, nortzuk, zer talde zaudete?

J: Gutxi gorabehera 13 talde, baita euren kabuz dauden beste bi pertsona ere.

B: Zelakoak izaten dira jaiak?

J: Jaiak denentzat izan behar diren helburua edo ideiarekin antolatzen baditugu, orduan denentzako ekitaldirik egon behar da. Guk planteatzen ditugun helburuak oso errazak dira betetzeko: jendeak gozatzea, ondo baino hobeto pasatzea, euskal kultura zabaltzea, eta hemen, gure herri honetan dagoen jaien inguruko kultura edo ohitura hau ezagutaraztea ematea.

B: Zer ekitaldi mota egoten dira?


J: Aipagarriena kontzertua izaten da, edo behintzat, oihartzun handiena izaten duena. Baina koadrilentzako Olinpiadak, haurrentzako jolasak, helduentzako erromeriak, ez hain

10:00 etan BIZKAIKO

GAITEROAK goiza saltsa ematen.
11:00 etan **PIRIKITURRIAK** FANFARREA auzoan girotzen.
13:00 etan BAKAILAO txapelketaren kazola bilketa eta sari banaketa.
 Arsuagan, arratsaldeko hirurak harte **GAZTELU PUZGARRIA**.
18:00 etan Arsuagan, arratsaldeko bederatzia harte **GAZTELU PUZGARRIA**.
20:00 etan JOTAK, **MENDIA ETA ERRIBERA** taldearekin Basarraten.
21:00 etan Arsuagan, bertan egindako jokoen **SARI BANAKETA**.
22:00 etan Azken traka eta "GUZTIAK BALIO DU" GUDA jaiak ondo bukatzeko.

20, ASTELEHENA

Barraketan umeen eguna.



helduentzako euskal musika tresnen kontzertuak, dantzaldiak, ... eta abar luze bat.

B: Hau honela esanda ematen du parte hartzea izugarri handia dela...

J: Egia esan ez. Kontrakoa ere ez, jendeak parte hartzen baitu. Baina beti da jende bera mugitzen dena, gauza guztietarako. Egunean ematen denak ez dauka gauzez izaten denarekin zerikusirik. Jendea gauzez gero eta gehiago irteten da, eta gero, egunez izaten diren ekitaldietan, ba hori, jende gutxi eta denak eza-gunak.

Partehartze hori bultzatu nahi dugu, eta horretarako antolatu zen Koadrilen Arteko Olinpiadak.

B: Jaiak antolatzea ez da erraza iza-ten...

J: Beti dago arazoren bat. Arruntena dirua izaten da. Beti diru eske, eta gero eta gehiago behar eta gero eta gutxiago jaso. Esaterako, orain hiru urte arte Udalak 500.000 pza ematen bazuen, gaur egun 200.000 pza edo ematen du, eta hau "onak" garelako, zeren Udalaren aurre-

EKITALDI BEREZIAK

■ Aurtun **SANTUTXUKO JAIETAN** Auzoko Koadrilen Arteko Bigarren Olinpiada izango da. Larunbatean, uztailak 18, Berbenan zehar, koadrila irabazleari saria emango zaio: **KRISTON AFARIA**. Badakizu, zure ohiko koadrilarekin parte hartu eta zorte ona izan dezazuela.

■ **NON DAGO SANGUTXU?** laz lehen aldiz egindako joku honetan egunero Sangutxu txikia aurkitu behar duzue. Txosnetan pistak emango dira topatzeko. Aurkitzen duenak **SARI BEREZIA** irabaziko du.

■ Astelehenean, hilak 13, hasita, **XAKE TXAPELKETA** Zonako tabernetan. Informazio gehiago bertan.

■ Uztailaren 10ean hasi eta 24ra bitartean, **ARTE GALERIA** zabalik egongo da Caserio Landaburu kalean, 8. zenbakiaren aurrean, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik, 21:00etara. Bertan, auzoko margolarien artelanak merke eskuratzeko aukera paregabea izango duzue. Uztailaren 24an erosle guztien artean margo bar zozketatuko da.

kontuetan ez da inondik agertzen diru hori. Soberakinak izaten dira. Bestaldetik oztopoak jai guneetan aurkitzen ditugu (Udalaren aldetik, jakina), eta baita azpiegituratan: eskenatokia, komunak, argindarra, ... honek guztiak dirutza suposatzen du, eta juxtu-juxtu ibiltzen gara.

B: Auzoko arazoak jaietan isladatzen dira?

J: Beti dago errebindikazio bat egiteko, eta egia esan, ia egunero kalejira bat dago aldarrikapen ezberdinekin.

B: Zelan ikusten dituzu jaiak orokorrean?

J: Eredu berdinarekin urte asko daramatzagu. Aldatzekotan gabiltza, baina ez da batere erraza. Jai Batzordean dauden taldeei ideia magiko horren dagoeneko, ea laster azaltzen zaigun.

Beste aldetik, eraginkortasun falta badagoela uste dut. Ez gara mundu guztiarengana iristen. Jendeak ez ditu eguneko ekitaldiak ezagutzen, eta hori zelan zabaldu ikasi behar dugu. Propaganda asuntoa izango da.

B: Eta aurtengoak?

J: Ea zelan suertatzen zaizkigun. Sangutxu behintzat hasteko irrikitan dugu.

J O R G E P E R E Z :

«Arinegi pasatzen ari da dena»

Oscar Tabuenkak Athletic-a utzi zuenetik Mahatserriak ez du izan ordezkariarik Bilboko ehun urtedun taldean. Orain, 22 urteko santutxutar honek errelebua hartu dio. Aitortu digunez bere bizitza erabat aldatu da urte hau hasi zuenetik gaurdaino. Gasteizko Aurreran jokatzetik, *Champions League*-a jokatzeko aukera izatera pasatu da. Athletic-aren 35 zenbakidun kamisetak santutxutar baten izena darama : Jorge Peréz da bera.



Unai Cuevas

berton: Nola hasi zinen futbolean?

Nik uste dut ia denak bezala, ikastetxean lagunekin jokatzuz. Hala ere nik uste dut modu berezi batean hasi nintzela: nik saskibaloian jokatzeko nuen eta behin Lezamara joan nintzen nire lagunekin torneo bat jokatzera jendea behar zutelako. Orduan, ni gustatu eta deitu egin zidaten. Momentu hartan Athletic-ek deitu zidanez futbolera pasatu nintzen.

berton: Zeintzuk taldeetatik pasatu zara Athletic-era heldu aurretik?

Hasieran, ikastetxeko taldean jokatzeko nuen. Gero, 8 urtetik 12 urtera bitartean Athletic-en jokatu nuen baina bota egin ninduten eta berriro ere ikastetxera bueltatu nintzen 17 urte bete arte. Ondoren, Danok Bat-era pasatu nintzen eta hemen egon eta gero Zamudion urte bi eman nituen erregionalean. Zamudion egon nintzen bigarren denboraldian 2B mailara igo ginen. Gero Athletic-ek fitxatu ninduen eta Gasteizko Aurrerara pasatu ninduten. Eta azkenez, aurten, Bilbao Athletic-ekin hasi nuen denboraldia eta Athletic-eko

lehen taldean amaitu dut.

berton: Nola gogoratzen duzu Athletic-ekin estreinaldiko partidua?

Kopa gogoan hartu beharreko txapelketa da. Irabazteko posibilitateak egon daitezkeen txapelketa bat da.

Egun hori ahaztezina izango da niretzat. Valenciaren kontra jokatu genuen Santimamiñen. Mister-ak batzutan deitzen zidan lehen taldearekin entrenatzeko eta ez nuen espero partidu horretarako deitzerik. 18 egon ginen deialdian eta asteburua

Lezaman igaror genuen. Azkenean, partiduko deialdian sartu ninduen eta bigarren zatiko hamargarren

minutu inguruan berotzeko ariketak egiteko agindu zigun eta irten egingo nintzela esan zidan. Orduan, Santimamiñen jende guztia txaloka hasi zen... momentu ahaztezina izango da niretzat, beti nirekin



joango den zer bait.

berton: Esan daiteke egia bihurtu den ametsa izan dela zuretzat?


Bai, zalantzarik gabe. Niretzat edozein gazteren ametsa, Bilboko izanik, Athletic-en jokatzeko da eta beraz, egia bihurtu den amets bat da. Gainera, Champions-ean sartu gara, Brasilen aurka jokatu dugu... dena arinegi pasatzen ari da eta uste dut oraindik ez dudala guztiz neure gain hartu; ez naiz

Aldagela lagun-talde bat da, jokalarien artean oso harreman ona bizi da eta nire ustez horiek dira arrakastaren gakoak.

gertatu zaidan guztiaz pentsatzen gelditu.

berton: Nola bizi izan zenuen bigarren postuaren ospakizuna?

Zirraragarria, sinestezina izan zen. Ohorezko bira eman Santimamiñen jende guztia bibratzen zegoelarik; gero hurrengo



egunean kamioian eta udaletxetik begira zegoen jende guztiarekin ez zenuela errepedea ikusten... eta gainera gaztea izanik, gehiago gozatzen duzu. Sinestezina izan zen benetan.

berton: Uste duzu Athletic-ek Champions League-ko aurretiko kanporaketa gaindituko duela?

Uste dut *Champions League*-an sartzea kostatu zaigunarekin ezin dezakegula alferrik galdu Juventus, Manchester United eta antzeko taldeen aurka jokatzeko aukera. Hala ere, nahiko konplikatu izango da zeren eta data txarretan jokatu beharko dugu. Adibidez, talde errusiar baten aurka jokatu behar baduzu oso zaila da errodaiea egina daukatelako. Baina uste dut zorte apur batekin eta lehenengo partidua kanpoan egokitzen bazaigu aurrera pasatu behar dugula eta gero ligaxkaz gozatu.

berton: Zer iritzi duzu Luis Fernández buruz?

Berari buruz esan dezakedan guztia ona da. Esker oneko hitzak esan ahal ditut berak lehenengo mailan jokatzeko aukera eman didalako eta honegatik oso esker oneko nago berarekin. Eta espero dut urte askotarako geratu dadila Athletic-en

nigan konfidantza jarri duelako eta nik konfidantza hori zelaian erakutsi nahi diodalako.

berton: Athletic, denbora epe laburrean, titulu baten jabe ikusten al duzu?

Egia esatearren, urte hau irudikeria bat izan da, ez delako normala Athletic bezalako talde bat (jokalaria euskaldun ez osatuta dagoena) bigarren geratzea Real Madrid, Betis edota Atletico Madrid bezalako taldeen aurretik. Zaila da titulu bat lortzea. Nire ustez Athletic bezalako talde batek liga irabaztea ia ezinezkoa da, baina kopa gogoan hartu beharreko txapelketa da. Irabazteko posibilitateak egon daitezkeen txapelketa bat da. Aurten, Mallorcakoa pena izan da, baina nik uste dut Bilbotar guztien ametsa den gabarra atera dezakegula txapelketa honen bidez.

berton: Zure auzoarekin harremanik mantentzen al

duzu?


Auzoko lagunak ez dut. Ditudan lagunak ikastetxeak eta futbol taldeetakoak dira. Hala ere, ez naiz asko ateratzen.

Ezin dezakegu alferrik galdu Juventus, Manchester United eta antzeko taldeen aurka jokatzeko aukera.

berton: Nabaritzen duzu inguruan ezaguna egin zarela?


Bai. Jendeak kalean gelditu egiten nau. Niri bizitzak 180 graduko aldaketa egin dit. Orain kaletik noanean entzuten dut: "begira, hori Jorge Pérez da" edo autografoak eskatzen dizkit eta hori ez nuen inondik inora ere espero.

berton: Talde handi baten eskaintza onartuko zenuke edo nahiago zenuke betirako Athleticen jarraitu?



berton: Ikasten ari zara?

Karrera bukatu nuen, kirol magisteritza egin nuen Gasteizen. Iaz, euskara ikasten egon nintzen eta aurten utzi behar izan dut. Baina berriro ere horretan jardungo dut zeren eta Euskal Herrian lan egiteko euskara jakin gabe ezinezkoa da.



Hori ezin daiteke inoiz jakin. Nik bizitza guztirako Athleticen geratzea nahiko nuke. Baina beste gauza bat da momenturen batean nirekin gustura ez badaude edota talde handiren batek deitzen badizu aukera ona eskainiz, pentsa ezazu Bartzelona baten... Baina dena den, ez da horretaz hitz egiteko garaia. Egin behar dudana, zeren eta oraindik ez dut ezer egin, Athleticen leku bat lortu eta talde honetaz luzaro gozatu.

berton: Zer giro bizi da aldagelan?

Gauzak ondo doazenean giroa beti da ona. Aldagela lagun-talde bat da, jokalarien artean oso harreman ona bizi da eta nire ustez horiek dira arrakastaren gakoak. Gertatzen dena zera da: emaitza onekin giroa ona da baina ez dakigu nola erantzungo duen taldeak emaitza txarrak heltzen direnean eta behean aurkitzen denean. Beste gauza bat izango da. Dena den, nik momentu onak bizi izan ditut.

15 gol

Defini zaitez jokalaririk bezala hiru hitzetan:

Erraztasuna, trebetasuna eta abiadura.

Jokalaririk bat :
Ronaldo.

Ametrik bat :
Gabarra ateratzea.

Janaririk bat :
Pasta.

Norekin eta nora joango zinateke oporretan :
Nire familiarekin eta Madagaskarrera.

Koloririk bat :
Berdea.

Pelikularik bat :
"El silencio de los corderos".

Abestirik bat :
Pretty Woman.

Hitzirik bat :
Osasuna.

Champions League-ko finala galdu ala kopa irabazi :
Kopa irabazi.

Herri bat :
Espainia.

Hiri bat :
Bilbo.

Neskarik bat :
Janire.

Amesgaiztorik bat :
Cafú.

Lehen mailan atzeritarrekin ala bigarren mailan euskaldunekin :
Bigarren mailan euskaldunekin.

1998ko ekaina. 5. zenbakia.

MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Helduentzat eskola eta tailerrak martxan Otxarkoagan

Lehen Dario de Areitio zen eskolan jarri du Lan Ekintzak zentru berria. Haurrik gabe gelditu zenez orain helduentzako eskola bihurtu da, Hiri Proiektu Pilotoaren izenpean. Proiektu honetarako diruaren erdia Udalak jarri du eta beste erdia Europako Batasunetik etorri da. Guztia, Udalaren Lan Ekintza zerbituzak bidartuko du. Proiektua 1999ko abendura arte dago programatua momentuz arduradunak gero jarraitzearen alde agertu badira ere. Hiru ataletan banatu dute proiektua.

ATAL BERDEA

Hau formazioa eta praktikak lotzen dituen atala da, hau da, formazioa eskolan bertan emango da baina ondoren ikasitakoa praktikan jartzeko, lan kontratu bat egingo zaie. Hau hirigintzarekin zer ikusia duten arloetan emango da batez ere (lore zaintza, igeltseritza...). Honela auzoaren urbanizazio proiektuan parte hartuko dute ikasleek.

ATAL GORRIA

Hemen formazioa izango da helburu nagusia, hau da, ikasleari lan bat aurkitzeko bidea jartzea. Oraindik zehaztu gabe badago ere (hau eskaeraren arabera egingo da), ikasketa desberdinak egin ahal izango dira. Atal honetan gai zehatz eta puntualak ere sarutko dira: kurrikulua zelan egin, ordenadorerik ez duenarentzat zenbait lan bertan egiteko aukera, dauden lan

eskaintzen inguruko informazioa, lan elkarrizketetarako prestakuntza... Bi atal hauetan sartzeko baldintzetako bat Otxarkoagako izatea edo bertan bizitzea da, langabezia egotea bestea. Adinari dagokionez berriz 16tik 65era bitartekoak sartzen dira. Dena den, tailer zehatz batzuetan (INEMen bitartez egiten direnak adibidez) 18 eta 23 urte bitartekoak bakarrik sartuko dira.

ATAL URDINA

Hau dagoeneko martxan dauden komertzioei zuzendua egongo da. Jarduera komertzialen azterketa egingo da., bide batez zenbait ekintza ere egingo da dendariak trebatu edo dinamizatu asmoz. Oraindik zehaztu ez badute ere, auzoko merkatuarentzat ere zenbait asmo badituzte. Atal hau ordea auzoko komertzio gutzietan zuzendua dago. Zenbait tailer dagoeneko martxan diren arren, iraila edo urria aldera hasiko da eskola bere osotasunean funtzionatzen. Bertako arduradunek proiektu garrantzitsutzat badute ere, zenbait gauza argitu nahi dute, orain arte prentsan atera denak zenbait ezulertze sortarazi baitu. Alde batetik, Otxarkoagako jendearentzat dela, eta bestetik ez dela enplegu bulego bat. Lan kontratuak egingo badira ere hauen helburua ikasleari paraktika bidez formazioa eskaintzea da, ez epe luzerako lanpostuak sortzea. Ikasketa guztiak berriz dohainik izango dira.



Dario de Areitio eskola.

Santutxuko familia elkartearen eskaerak Metro-Bilbaori



Karmeloko igogailua

Santutxuko Familia Elkarteak azkenotan metroaren inguruan sortu diren arazo batzuei konponbidea ematea eskatu dio Metro-Bilbaok zuzendaritzari. Hauek dira eskaerok: Basarrateko geltokian arrisku biz ohartarazi nahi dute. Alde batetik umeak barandirallara igotzen dira, altura handitik jausteko arrisku handiarekin, eta bestetik, euria egiten duenean eskaileretan laban egiten da. Hau konpontzeko sarrera hau estaltzea proposatu diote Metro-Bilbaori, beste sarrera batzuetan egin den legez.

Santutxuko geltokian, bestalde, ezagunak dira igogailuan sartzeko komediak eta karrerak. Honi irtenbidea emateko asmoz, uztailean 24 lagunentzako igogailu berria egiteko obrei ekingo zaie. Santutxuko Familia Elkarteak, neurri horrekin ados egonda ere, benetako konponbidea irteerako atea Karmelo kalean bertan egitea dela uste du, eta horrela adierazi dio Metro-Bilbaori. Honez gain, geltoki bien sarreran, euria egiten duenean, oinekin barrura botatzen den urarekin laban egiteko arriskua ere aipatu du SFEak, eta hau ere konpontzeko eskatu dute.

Azkenengoz, egun berezietan ordutegia goizaldeko orduetara arte luzatzen denean, ez Karmeloko irteerako atea, ez igogailuak istea eskatu du Santutxuko auzo elkarteak.

Atxilotuak Santutxun

Polizia Nazionalak azken aldian hainbat lagun atxilotu ditu, eta haietako asko santutxutarrak dira. Maiatzaren 28 eta 29an Begoña Perez Kapape, Bigarren Ibarra Izurieta, Juan Pablo Dieguez, Inma Berriozabal eta Jose Gorostiza atxilotu zituzten. Hauek guztiak inkomunikaturik egon dira eta Begoña Perez da aske utzi duten bakarra inolako fidantzarik gabe. Jose Gorostiza, ordea, milioi bateko fidantza ordaindu ondoren askatu zuten ekainaren 19an. Bestalde, ekainaren 5ean Ertzaintzak Lorena Couceiro eta Alberto Arenal atxilotu zituen. Ertzaintzak gazte bi hauek atxilotu zituen, egun horretan Santutxun izandako istiluetan parte hartu zutelakoan, ondoren gazte hauek espetxeratu zituzten. Ekainaren 17an, Joxe Garcia ere atxilotu zuten eta deklaratu ondoren espetxe zigorra ezarri zioten.



Atxilotetengatik protestatzeko manifestazioa

Etenaldia Mina del Morroko etxebizitzaren eraikuntzan

Zazpi hilabete dira dagoeneko Gasteizko gobernua 261 etxebizitzaren eraikitzeko lizentzia eskatu zuela, baina Bilboko udalak uko egin dio. Eusko Jaurlaritzako etxebizitzaren sailari. Mina del Morroko poligonoan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lizentzia ukatzeak eraikuntzak etetea eragin du.

Etxeak orube honetan egin behar ziren



Josu Ortuondo Otxarkoagako Familia Elkartearekin bildu da.



Bilboko alkateak Otxarkoagako Familia Elkartearekin egindako bilera batean hainbat proiekturen erantzukizuna hartu du. Auzoko urbanizazioa, etxebizitzaren errentapena, auzo etxearen birmoldaketa eta urbanizazioa finantzatzeko moduak izan dira, besteak beste, Ortuondok bere gain hartu dituen eginbeharrak. Otxarkoagako Familia Elkarteak bestalde, obra hauetarako auzoko langabeak hartzea proposatu du.



Begoñako HBkoen ospakizuna

Herri Batasunaren 18. urteurrena Begoñan

Ekainaren 13an, larunbata Begoñako Herri Batasunak bere 18. urteurrena dela eta bazkari herrikoia ospatu zuten. Bertan mugimendu honi auzo hauetan hasiera eman zion aspaldiko jendea zein gaur egun dagoena bildu zen, elkar ezagutzuz batzuk eta garai horiek gogora ekarri bestea. Giro onean eta sabela ondo beteaz indarrak hartu zuten lanean jarraitzeko.



Bizkaiko Aldundiak antolatuta ingurugiroaren jaia Etxebarria parkean



Jai handia Etxebarrian

Ekainaren 7an, igandea, 10:30etan hasita Bizkaiko Foru Aldundiak urtero antolatzen duen Ingurugiroaren Jaia ospatu zen "geure ingurugiroa, geure etorkizuna" lelopean. Ospakizun hau Nazioarteko Ingurugiroaren Aldeko Eguna dela eta burutzen da. Aldundia antolatzaile bada ere, zehazki esanda bere Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saileko Bizkaia Maiteak klubak antolatua da, honen burua Ester Solabarrieta izanik. Goizetik umez bete zen parkea, baina jende heldua eta nagusia ere nonahi zebilen, hau zer den beste horretan zer dagoen, tximeletak bezala. Egitarauan denetarik agertzen zen:

- Kirol jarduerak: hipika, karate, saskibaloia, irristaketa, herri kirolak, ... (guneak egokitu ziren horretarako)
- Erakarpinak eta haurrentzako parkea: puzgarriak, ohe elastikoak, gargantua, ... baita Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen jaialdia ere.
- Zenbait erakusketa
- Musika: Swins Stars Band eta Alaitz eta Mainerren emanaldiak

Lehiaketak, erakustaldiak, teatroa, suhiltzaileen bitsa, ... Egitarautik kanpo zeuden beste ekimen batzuk ere izan ziren bertan. Besteak beste eta gaur egun Bilbon oihar-tzuna duen arazoa, Artigasen Zabalgarbi enpresak ezarri gura duen errauskailuarena hain zuzen ere. Bertan izan ziren Errauskailuaren aurkako Plataformakoak euren aldarrikapenak eginez, argazkian ikusten den bezala. Eguerdia pasatuta eta bazkal ordua gerturatzen zen heinean, bakoitza bere etxera joan zen bazkal-tzen, eta orduan parkea eta jaia bera nahiko desitxuratuta geratu zen. Dena den, arratsaldean eta zeuden

Danok Bat taldearen urteurrena

Ekainaren 13an Danok Bat futbol taldeak bere 75. urteurrena ospatu zuen. Ekitaldiak goizeko 10,30etan hasi ziren oinezko lasterketa batekin. Lasterketa honetan klub-ak dituen 15 taldeetako jokalariek parte hartu zuten. Ondoren, bazkari herrikoia izan zuten Mallonako futbol zelaian. Ospakizuna gaueko 9,30ak arte luzatu zen. Gogoratu beharra dago talde honetan Txirri, Bolo edota Jorge Pérez-ek jokatu dutela. Hau guztia kontutan hartuz danok bat egin beharko dugu eta "zorionak!" esan beharko diogu Mahatserriko talde honi.

kontzertu erakargarriak ezetza eman ezinik, zelaiak berriro jendez bete ziren. Gaua erabat itxia izan baino lehen ez zen ia inor bertan geratzen, desmontaketa lanetakoak ez baziren. Eguraldiak lagunduta, jaia polita suertatu zen eta jendeak partehartze handia izan zuen, batez ere umeen aldetik. Azken finean eurak helburu antolatu ohi da jaia hau, denontzat zabalik badago ere. Alajaina!



Ekologisten protestaldia



jo ta ke
Otxarkoaga
euskaldundu arte!
Pa... Yak baditu alternatibak
demokratikoak noski!!

EUSKAL PRESOKAK
EUSKAL HERRIRA




Euskal Herriko antzerkigintzan hutsuneak betez

Euskal antzerkiaren munduan zulo batzuk ageri dira eta hauek estaltzeko asmoz sortu zen Deabru Beltzak taldea. Santutxutar baten ideia izan zen eta aurrera eraman zuen ikuskizun ezberdinen bidez. Espektakuluak arrakasta lortu du eta orain erasora jo du berriro ere ikuskizun berri batekin. Honetan, Inkieta Antzerki Taldearen laguntza izan du eta uztailetik aurrera Euskal Herriko kaleek bizitasun berezi bat izango dute.

⇒ Unai Cuevas

Garbitxurekin geratu ginen. Garbitxu *Deabru Beltzak* taldearen sortzailea eta *Kukubiltxoko* partaidea da. Esan zigunez Deabru Beltzak antzerki taldearen ideia berea izan zen, berarengandik ateratako sormena. Talde hau duela bi urte sortu zen eta egin zuten lehen espektakuluak *kontzertu beltza* zuen izena. Eta zergatik hau ere beltza? Ba, arrazoi simple bategatik: ikuskizuna leku beltz batean burutzen zelako eta manipulatzaileak beltzez jantzita zihozelako. Titere baten ikuskizuna zen, titere oso famatu baten ikuskizuna. Fermin Muguruza "txikitu" egin zuten eta bere kanta batzuk jarri zituzten giroa animatuz. Garbitxuk adierazi zigunez espektakulu honek bi zergati zituen. Batetik, bere amets bat betetzen zuen; eta bestetik, Euskal Herriko antzerkigintzan zegoen zuloa edo hutsunea betetzen laguntzen zuen. Zein da hutsune hau? Euskal Herrian jende gaztearentzat ez dela egiten ikuskizunik. Kezka hau izan zen nagusiki *Deabru Beltzak* antzerki taldearen sorburua. Behin eta berriz errepikatu zigun Euskal Herrian ez zela gazteentzako espektakulurik egiten eta Bartzelona, Madril, Murtzia edo Galizian, aldiz, bai. Bestalde, aipatu zuenez "gazteak ez



daude ohituta antzerkira joaten; demandarik ez dago, baina ohiturarik ere ez". Honela, ohitura hori hartzeko asmoz Fermin Muguruzaren ikuskizuna prestatu zuten eta kriston demanda izan zuten. Hasieran, jolas moduko kontu bat izan zen baina zerbait atera zitekeela ikusi zutenean ordu erdiko ikuskizuna prestatu zuten. Honetarako, jende profesionala bildu zen "produktu amateur bat" egiteko asmoz. Lagun arteko jolas batetik izugarritzko produktua atera zuten; "txotxolada" bat zela uste zuten espektakulu batetik produktu oso indartsua atera zen. Gainera, azpimarratu beharra dago frogamoduko ikuskizun bat egin nahi

zutela, jendearen erantzuna ikusteko asmoz. Eta erantzuna guztiz positiboa izan zen. Oso produktu indartsua lortu zuten eskuen artean. Begiratu nola-koak diren gauzak! Ikuskizun honekin hainbat jaialditan parte hartu dute. Horien artean aipagarriena Logroñoeko poltsikoko antzerkiko jaialdia da (estatuan dagoen jaialdirik garrantzitsuenak) eta bertan jaialdia ireki zuten.

DEABRU BELTZEN JARRAIPENA

Ikuskizun hura ateraz geroztik, kale antzerkiaren eta ankapaluen inguruko kontuez arduratu izan da Garbitxu. Eta ildo honetatik, *Deabru Beltzak* taldean bere lankidea den Zesar Arroyok ikuskizun bat sortzea proposatu zion. Orduan, Garbitxuk, *Deabru Beltzen* jarraipena egitea erabaki zuen. Gauzak honela, antzerkigile honek espektakulu berri bat sortu, produzitu eta zuzentzen du. Ikuskizun hau *Inkieta* Antzerki Taldearekin batera burutu du eta laister munduratuko da. *Ibiltariak* izenburuko ikuskizun berri hau, PVCz egindako erroto erraldoi batzuk, ankapaluak, suak, pirotekniak, musikak, akrobaziak eta kalejira batek osatzen dute. Testurik gabekoa da baina hala ere oso ikuskizun erakargarria eta espektakularra izango da.

1998ko ekaina. 5. zenbakia.

Ikuskizunean parte hartzen duten guztiak antzerki eskola ezberdinetakoak eta Euskal Herriko dramaturgiaren ingurukoak dira. Esan beharra dago, Garbitxuz aparte badagoela Mahatserriko beste ordezkari bat: Otxarkoagakoa den Igor Uzkudun. Beraz, Mahatserriak ordezkaritza nabarmena du ikuskizun bero eta zaratsatu honetan. Estreinaldi Mundiala Uztailearen 10ean izango da, Lekeitioko Nazioarteko Kale Antzerki jaialdian hain zuzen ere. Lekeition, beste hiru euskal talderekin batera jaialdia irekitzeaz arduratuko dira. Bertan, Frantzia, Italia eta Argentinako taldeak ere arituko dira. (Argentinaren hauek Santutxuko jaietan egongo dira, beraz, adi egon!!). *Ibiltariak* izenari ohore eginez, Uztailearen 17an santutxuko jaietan egongo dira. Ondoren, Arrigorriagako jaietatik ere pasatuko dira, Bilboko jaietan ere ikusi ahal izango ditugu, Zugarramurdi ere... Ikuskizun hau oso proiektu indartsua eta oso aurrerapausu garrantzitsua zela aitortu zigun Garbitxuk. *Ibiltariak* definitzea

eskatu genion eta *Deabru Beltzak* eta *Inkieta* Antzerki Taldearen apostu handia bat bezala definitu zigun. Honekin batera, Euskal Herrian bene-tako espektakulu superpotente bat sortu nahi izan zutela erantzun zuen. Ekonomiari dagokionez, gastuak estali eta irabaziak lortzea zen esperantza. Ikuskizun profesionala izanik kobratu egingo dute, *Deabru Beltzak* eta *Inkieta* hortik bizi behar dutelako. Diru laguntzak jaso dituzte, erridikuluak izan badira ere (Hala ere ongi etorriak!). Diru kontuen aipamen txikia egin eta gero *Ibiltariak* ikuskizunarekin beste hutsune bat bete nahi izan dutela adierazi zigun Santutxutar antzerki-gileak. Hutsune berri hau kaleko antzerkian somatzen zuen, azkenaldian antzerki era berezi hau gainbehera baitze-torren. Hainbat hutsune bete nahi izanik esan beharra dago euskal antzerkigintza ez duela batere egoera onean ikusten. Gehienbat maila profesionalari buruz hitz egitean zeren eta Euskal Herrian 8 talde profesional bakarrik baitaude.

"Txisa eginda nago". Hauek izan ziren Garbi-txuren hitzak estreinaldia oso gertu zegoela ikusirik. Antzerki munduak absorbitu egiten du gazte hau eta bere lagunak eta bere familiaren laguntza ezinbestekotzat jo zituen. Estreinaldia heldu arte txisa dariola jarraituko du Garbitxuk eta guk animoak eman nahi dizkiogu. Ahaztu baino lehen, eskerrak eman behar



Garbitxu

IBILTARIAK

Deabru Beltzak + Inkieta Antzerki Taldeak ekoiztua.

★ **IKUSKIZUN MOTA** : Kale arteko espektakulu piroteknikoa. Musika, akrobaziak, malabareak eta zankoez osatutako ikuskizuna.

★ **DIFUSIO AUKERAK** : Klean aurkezteko, bereziki gauze antzetzeko lana.

★ **GAIA** : DEABRU BELTZAK-en eskutik, erritmo ikusgarrien nahasketa eroa. Oreka eta desorekaren arteko jokoak. Burdinazko mamu erraldoi **IBILTARIAK**, zorapenera eramango zaituen kalejira arinean. Robotikak erditutako ankapaluak, malabare frenetikoak. Helburu bakarra duen argi eta soinu betetako espektakulua... eta helburua...**ZUEK** zarete.

★ **ZUZENDARIA** : Garbitxu.

★ **EKOIZPENA** : Inkieta Antzerki Taldea.

★ **BANAKETA** : Zesar A. Ogara, Alberto Gómez, Igor Uzkudun, Germán Jauregi.

dizkiogu *Deabru Beltzak* eta *Inkieta*ko partaideei primizia *Berton* aldizkariari eskaintzeagatik (prentsurrekoa aldizkaria atera baino lehen egingo da baina primizia mundiala geurea da, eta gurekin batera zuena, harpidedunena. Eta erosleena?...). Etorkizunari begira, jarraitzeko asmoa dute eta jadanik badute ikuskizun itxi bat egitearen ideia. Gauza oso indartsu bat egin nahi dute, Euskal Herriko gai batean zentratuta eta jendearengan probokazioa bilazteko asmoz. Baina hori beste kontu bat da (ala beste primizia bat?), beraz ez dugu ezertxo ere gehiago aurreratuko.

“Eguzki lorea” mendirik-mendi dabil

Duela urte batzuk, Boluetan, “Eguzki lorea” sortu zen. Izen berezi hau bertako mendi taldeari dagokio. Ikusten denez, auzo honetan, beste hainbat lekutan bezala mendiak erakarpena sortzen du. Erakarpen hori sentitzen zutenen artean mendi taldea sortu zuten. Urte hauetan, hainbat irteera egin dituzte eta Boluetako mendizaleek hain gustoko duten mendiaz benetan gozatzeko aukera izan dute.

⇒ Unai Cuevas

Orain dela zortzi urte gutxi gora-behera, Boluetako auzo etxearen irekierarekin batera elkarreentzako lokal bat ireki zuten (auzo etxean bertan). Lokal hau udalak itxi ez zezan eta nolabaiteko edukina eman nahirik, talde ezberdinak sortzen hasi ziren. Talde hoiien artean, Boluetako “Eguzki lorea” mendi taldea aurkitzen zen. Honekin lotuta, gaur egun aipatzekoa da sortu ziren talde guztietatik geratzen den talde bakarra berau dela.

Mendi talde hau 20 bazkide fundatzailek eratu zuten eta denak Bolueta edo inguruetakoak ziren. Hala ere, azken urteotan antolatu izan dituzten ekintzek erakarpena sortarazi

Boluetan sortu ziren talde guztietatik geratzen den talde bakarra berau da.

duelako edo, leku askotako jendea hurbildu zaie. Hau honela, Boluetaz gain beste hainbat auzotako bazkideak aurkitzen ditugu bertan.

Urtero, ziurki ordaintzen dutenen bazkideen batzuetan 60 ingurukoa da (urte batzutan 70tik gora ibiltzen dira eta beste urte

batzutan 50 inguru). Baina denetara, bestelako bazkideak kontutan izanik, 100dik gora bazkidek osatzen dute mendi taldea. Honetaz gain esan beharra dago bazkideen

Batzuk Himalayan ibilitakoak dira eta aurten Sagarmatha-ra joateko asmoa daukate.

portzentaia altu bat federatua dagoela. Taldekoek federatzea gomendatzen dute, batez ere segurtasunagatik eta erreskate edo antzeko arazoren baterako baliogarria delako.

Mendi talde honetan jende gehiena gaztea da. Batzuetan 20-30 urte bitartekoa da, zaharrena 40 urte ingurukoa izanik.

Irtereei dagokionez, urtero egutegi bat prestatzen dute ofizialki antolatutako 10-12 irteeraz osatua. Irteera hauek finkoak dira, egutegian markatutakoak. Hauetaz gain, beste irteera berezi batzuk egiten dituzte. Hauek, lagunen artean bildu eta prestatu egiten dituzte; kuadrila ezberdinek egiten dituztenak dira. Beraz, urtean irteera ugari egiten dituzte. Aurten egin dituzten irteeren

artean aipagarriak dira klasikoak bihurtu diren Aizkorri eta Txindokira egindako ibilaldiak. Bestalde, urte hauetan beste hainbat lekutara joan izan dira: Gredos-eko mendizerrara (Almanzor gailurrera) neguan, pirineoetara 3.000 metrotik gorako gailurrak igotzera... Gainera mendi talde honetako batzuk Himalayan ibilitakoak dira eta aurten Sagarmatha-ra joateko asmoa daukate. Ikus daitekenez maila guztietako mendizaleak biltzen dira “Eguzki lorean”.

Diru laguntzak urtero eskatzen dituzte eta aurten udaletxetik materiala ersoteko diru laguntza jaso dute. Gero, materiale hau erabili nahi duenarentzat alogeran jartzen dute. Beste urte batzutan (ez da izan aurtengo kasua), irteerak egiteko diru laguntzak ere jaso izan dituzte. Irteera hauek, Boluetan zeudenean auzoari begira egindakoak ziren; auzoko norbaitek joateko gogoaz bazuen apuntatu eta joan zitekeen.

Gaur egun, Begoñako auzo etxean biltzen dira asteazken eta ostegunetan 7etatik 9ak arte. Hau honela, Bolueta edo ingurukoa izanik eta mendia gustoko baduzu badakizu nora zuzendu. Animo eta “ikus mendizaleak...”



EGUZKI LOREA
Boluetako Mendi Taldea



bertan

kulturberriak

Kalean da Beren Beregi gida

Santutxuko gazte sortzaileak biltzen dituen Sortu Ta Sortuzek



ale berria argitaratu du. Igaz agerkaria paper formatotik maketa izatera aldatu bazuen, oraingoan paperera itzuli da. Baina ez inoren lanak ezagutarazteko, batera edo bestera sormenaren inguruan dabil-tzanak bilduko dituen jendea dakarren gida baino. 200 pezetan dago salgai ohiko lekuetan.

STSkoen hitzetan badago honelako zerbaiten beharra. “Sekulako jende pilo daukagu auzoan gauzak egiten dituen, pintatu, kantuan, eskulangintzan... mila gauzatan, baina azkenean ez dago elkarrekin komunikaziorik eta beti ilunpean gelditzen dira lanok. Uste dugu garrantzitsua dela honelako zerbait egitea, gida alegia, astiro astiro gutxieneko harremana sortadin eta hala nahi duenak berea plazaratu eta elkarlana

errezago izan dezan”.

Izan ere, bilketa lanean dauka ale honek bere garrantzia. Jakina jende asko falta dela, baina aurrera begira ere, urteroedo, berritzeko asmoa dago eta lehena ateratzean zegoen gakoak. “Aurrerantzean jendeak badauka erreferentzia hau eta espero dugu hurrengoan gehiagok izango gaituela

Txurdinagako eskolan egin dute Bilboko ikastetxeetako bertso jaia

Igaz hasitako oihutari eutsiz, aurten ere Txurdinagako ikastetxean bildu dira astero astero Bilbo osoan zehar bertsoan ibili diren ikasleak. Jose Luis “Altzalei” irakasle izan dutela ibili dira euskalgintzan eta bertsoaren mundura hurbilduz, eta azken ekitaldi honetarako pozik agertu ziren nabarmenen aritu diren ikasleak.

Mailakatzearen, adinaren eta euskararen arabera oso errealitate ezberdinek topo egin arren, denek gozatu ahal izan dute bertsoarako hurbilpen hau. Lehenengo, txapelketa txiki bat antolatu zen, bizpahiru bertso idazteko lanarekin, eta gero, lehia baino jai giroan murgilduta, azken sari banaketari ekin zitzaion, betiko euskal kantuak kantatu eta askaria hartu aurretik.

Bilboko eskoletako asko Zortziko Txikia Bizkaia Irratiko bertso programan ere ibili dira, pertsona ezagunen baten inguruan edo gustoko gaien gainean irratiaioa aitzakia zela bertsoak osatuz. Bilduma guztiarekin aurton ere hauen liburuxka argitaratu zen Bizkaiko Bertsozale Elkarteak Bilboko Udalaren laguntzaz argitaraturik.

Ikastetxe zein ikasleei aipamena

Joseba Santxo bertso jartzaile eta idazlea egon zen sari banaketa txiki honetan, eta ikastetxe bakoitzeko ikasleei bere saritxua emateaz gain, aipamenik ere egin zitzaion urtean zehar bereziki nabarmendu direnei. Ziur aurrera eginez badutela etorkizunik bertso gintzan.

Era berean, ikastetxeei ere diploma

kontuan, azkenean denon intereseko gauza baita”. Eta jende kopuru txukuna bildu dute edozelan ere.

AURKEZPEN JAI BEREZIAK

Bertsoa, literatura, animazioa, antzerkia... mila esparru biltzen du gidak eta aurkezpena egiterakoan ere ez dira makal ibili. Ohi dutenez, bitan banatu dute, bata Santutxun, neurri txikiagoan baina duin eta auzo osoari ezagutaraziz, eta bigarrena Bilbo mailara heltzeko asmoz, Kafe Antzokian.

Lehenari dagokionean batzuk gogoan izango dute: ekaineko egun sargorietako batean, Espainiak Paraguairerain zeukan partidua, eta zenbait gazte zorori merengea jaurtikiz jende andana Santutxuko Sei Izar plazan. Hasieran lotsati xamar ibili ziren, ehun pezeta utzi eta merengea lagunari -edo gorroto zionari, libre baitzen- botatzeko, baina animatzen hasita, nork gelditu neska-mutilok? Koadrilaka ere milakoa utzi ohi zuten nahi adina jaurtiketa egiteko, eta bat baino gehiagok egin zuten topo inguruko tabernetako komunetan, aurpegi ingurutik merenge gozo baina itsaskorra kendu nahiz.

Kafe Antzokiko jaia beste era batekoa izan zen, baina itxurosoa era berean. Beste jairen baten baino lagun gutxiago bildu arren, ostegun hark ere eman zuen bererik, eta auzoan eta inguruan egiten denaren erakustaldi ederra izan zen. Hasteko poema musikatuak egon ziren, magiazo jolasak ere, dantza esperimentalak, musika zelak ez, azkenaldiko libeloei libelo egiten zion antzerkia... Sormen iturria agortzen ez den gazte jende honen agerraldi bikaina.

berezi bana, beren beregi bakoitzarentzat eginda eman zioten bertaratutako irakasleei, Unai Iturriagaren bertso eta guzti. Umorerik ez zen falta izan Txurdinagan, eta gehien eritiziz, sarri euskal girotik horren urrun -batzuk, besteak hurbilago- egotea egokitu zaien umeoi bertso gintzarako saialdi honek merezi duelakoan, ziur aurrerantzean ere honelako eta antzeko ekimenak osasuntsuak izango direla euskara zein bertsoarentzat.

Briñas, Txurdinaga, Veracruz, Karmelo, Begoñazpi... banan banan hogeiki ikastetxe bildu ziren, batek edo bestek kale egin arren, eta denen artean arrasti ederra gozatzeko aukera izan genuen bertsozale eta euskaltzaleok.

B A I B O T A

I D E A K



ARANTZAZU ALDANONDO

Arantzazu, zenbait eskoletan martxan dagoen euskararen normalizaziorako proiektuko partaidea bat da. Bera konkretuki Txurdinaga Behekoa institutuko irakaslea da eta beraz, ikastetxe horretako proiektuko partaidea. Euskararen aldeko proiektu honi buruz galdetzean, zera azaltzen zigun:

"Proiektu honek bi urte daramatza martxan, nahiz eta ikastetxe gehienak aurten sartu diren bertan. Epe luzearako proiektua da, pixkanaka-pixkanaka landu behar dena eta helburua euskara bultzatzea da, argi eta garbi. Bestalde, nahiz eta inguruko eskola asko biltzen dituen proiektu bat izan, eskola bakoitzak bere plangintza propioak ditu, ikastetxe bakoitza mundu bat baita. Batzuk A eta B ereduak bakarrik dituzte, Beste batzuk D eredu... Horregatik bakoitzak bere funtzionamendu propioa izan behar du, nahiz eta noizean behin elkarrekin ekintza batzuk antolatu.

Gaurkoa da horren adibide. Hala ere gaurkoan ez da posible izan euskararen aldeko proiektu honetan partaidea diren ikastetxe guztiak etortzea, leku arazoak direla medio. Gaur hemen izan direnak Txurdinaga Behekoa B.H.I., Zurbaranbarri B.H.I., Gabriel Aresti B.H.I., Txurdinagako Eskola, Solokoetxe (Karmelo II) eta Briñas izan dira. Beno, eta gainera ikastetxe horietako ikasle batzuk bakarrik izan dute etorri ahal izateko zortea, emanaldi bakoitzean 400 pertsona besterik ez baitira sartzen. Proiektuaren balorazio ona egiten dugu, orokorrean. Hala ere, landu behar den gauza bat da eta dena astiro-astiro doa, baina tira!"

Oskorri & The Pub Ibiltaria Txurdinagan eskolen normalizazio proiektuaren barruan



Maiatzaren 27a laneguna izan arren, egun berezia izan zen Mahatserrri inguruko zenbait haurrentzat. Arrazoia: asteazken burusoil bat izan arren, Txurdinaga Behekoa institutuan Oskorri musika taldearen bi emanaldi izan zirela. Gonbidatuak berriz, inguruko zenbait ikastetxeetako haurrak. Eta helburua, euskara bultzatzea.


Beraz, zortzi ikastetxetako zortzi-ehun bat gaztetxok, eguneroko klaseak kantu saio polit batez ordezkatu zituzten.

Goizeko emanaldia 11:30etan hasten zelakoan, lasai-lasai hurbildu ginen argazkilaria eta biok Txurdinaga Behekoa ikastetxera, goizegi gindoazela eta, berrikerian eta patxadaz. Baina 11:15ak alderako han baginen ere, Oskorri kantari zen gu heldu ginenerako. Beraz, azkenean presaka sartu ginen haur eta irakaslez beteta zegoen areto nagusira.

Oskorri & The Pub Ibiltaria izan zen eskeini zuten emanaldia. Eskenatokian, Oskorri taldea oso-osorik Natxo de Felipe buru izanik, eta alboan pantaila handi bat, kantu bakoitzaren letra guztiak, "txuleta" moduan erakusten zituena. Pentsatuko zenuten, han bildu zen jende guztiak abesti guztiak kantatzera bultzatzea zen pantaila

haren helburua. Eta protagonista guzti hauen aurrez aurre, beste protagonistak zeuden, guztiz aztoraturik: inguruko ikastetxeetako 400 bat haur. Batzuk fin abesten, eta besteak berera, hizketan eta zarataka. Egia aitortu behar bada, azken talde honek une batzuetan Natxo de Felipe bere onetik ateratzea ere lortu zuen. Ikaslerik abeslarienek adi kasu egiten zioten Oskorriko abeslariari eta kontzertuaz disfrutatu zutela esan dezaket. Baina ordu eta erdi inguru luzatu zen emanaldia gehien disfrutatu zutenak irakasle berak izan zirela esango nuke ziurtasun osoz.

Baina guk, hango giroa ikusteaz gain, emanaldi horren atzean zer zegoen jakin nahi izan genuen, eta egia esan txalotzeko moduko proiektu batekin egin genuen topo. Arantza Aldanondo antolatzailerik batekin hizketalditxo bat izan genuen, eta hemen alboan dituzue bere hitz eta azalpenak. Eta nola ez! Natxo de Felipe ere han genuen, eta bere iritzia eta inpresioa jasotzeko aprobetxatu genuen. Bere hitzak ere, hemen alboan dituzue. Gure aldetik, besterik ez. Soilik esan gure aldetik zortetik onena opa diegula proiektu hau arrakastaz aurrera eraman dezaten eta horrela euskara bultzatzen jarrai dezaten.



NATXO DE FELIPE

Natxo de Felipek ez du aurkezpen handirik behar, urte asko baitira hara eta hona dabilela bere musika zabaltzen. Bera da Oskorri taldean ahotsa eta aurpegia jartzen dituen; Oskorriren irudi publikoa. Hona hemen zer zioen kantaldi honi eta proiektuari buruz:

"Egia esan, goizean deskontrol pixka bat egon da. Hemen 400 ume bildu dira. Hasten badira 25 zarataka, hizketan, saltoka... hondatu egiten dute dena. Hala ere, kontutan hartu behar da normalean emanaldi hau ez dela umeekin egiten; jende nagusiarekin edo edade guztietako jendearekin egiten da eta oso ondo pasatzen dute kantatzen... Umeek ere kantatzeko gogoia izaten dute eta oso gustora abesten dute batez ere kantuak ezagunak dituztenean. Gainera errepertorio hau egiten dugu jendeak parte hartu dezan eta ez espektadore gisa egon dadin. Guk nahi duguna da jendea kantatzen jartzea. Horregatik jartzen ditugu testuak horrela, pantaila batetan. Euskararen normalizazioaren alde ikastetxeetan egiten ari den plangintza honi dagokionez, esperientzia gisa oso polita dela uste dut. Inguruko eskolak denen artean paratzea eta horrelako gauzak antolatzea, esperientzia zoragarria da; leku guztietan egin beharko litzakeena



Santuskaratxu 98

Santutxuko euskaltzainon uolaberriko ospakizuna

Santuskaratxu 98ko ekitaldiak.



Ezkerretik hasita: Martin Basterra, Joseba Arrieta, Patxi Uribarren, Euskal Txokoko partaidea bat eta Jon Etxebarri

Euskal kultura agertu eta euskalgintza sendotzea helburu duen Santuskaratxuk aurten egitarau apala baina interesantea gauzatu du. Hasiera eman zitzaion aurreko orrialdean aipatu den Oskorri & The Pub ibiltariaren emanaldiarekin. Horko kronika irakurri baino ez da haren berri izateko, beraz.

Beste ekitaldi batzuk izan dira hala ere. Ekainaren 4an "Santutxu eta Euskalgintza" izenez egin zen mahai inguruan auzo honetan urte luzeetan ibilitako hiru euskaltzale ezagun izan genituen berbetan: Joseba Arrieta, ikastolen bultzatzaile eta urteetan Kirikiño ikastolako gerentea izanekoa; Patxi Uribarren, idazlea, hiztegiilea eta euskara eskolen lehenengo antolatzaileetakoa, eta Martin Basterra, ikastolaren sortzaile eta lehenengo euskara irakasleetakoa. Moderatzaile lana Jon Etxebarri Euskadi Irratiko kazetariak egin zuen.

Santutxuko mugimendu euskaltzale indartsuaren klabeak bilatzea zen ekitaldiaren helburuetako bat. Honela bada, ikastola eta euskara klaseen sorreraz eta euskalgintzaren egoeraz kontu-kontari ibili ziren mahaikideak, entzule gazteek jakin ez zituzten hainbat pasadizo eta istoriorekin harriz.

Joseba Arrietak bota zituen zenbait kontu xeblere gerra osteko giroaz, *Hierro* egunkari falangistan zelan agertzen zen kalean euskaraz egiten zutenen zerrenda bat "Multado por gamberro" epigrafepean, edo Santutxuko lehenengo Euskal Jaietako giro ederraz eta euskara eta euskal kultura bultzatzeko orduko ilusio eta gogoaz.


Martin Basterrak euskara klaseen hastapenetako komeria batzuk kontatu zituen, zelan lehenengo egunean 300 ikasle agertu ziren euskara ikasi guran, eta irakasleak inongo prestaketa eta metodo barik ekin behar..

Patxi Uribarren, berriz, orduko Bilboko giro kulturalaz mintzatu zen, baita helduentzako euskara klaseak zelan antolatu ziren kontatu ere. Bestalde, ekainaren 12an bertsotan eta afaltzen izan ziren Sebastian Lizaso eta Aritz Lopategi Markoartu txokoa. Bertso festa bihurtu zen bertso afaria Santutxuko Bertso Eskolako partaidea batzuk animatu eta eurak ere bertsotan hasi zirenean. Bertso saio polita eta beroa suertatu zen azkenean.

Azkenik, Herri aldizkariaren erakusketak ibiltaria ere egin da ekainaren azken aurreko astean Santutxuko taberna batzuetan. Bertan eta beronen moduko agerkariak eta proiektuak ezagutarazteko asmoz. Hauxe izan da aurtengo Santuskaratxu, hemendik urtebetera ekitaldi gehiago eta oraindino politagoak espero ditugu. Eta Santutxu, oraindino euskaldunagoa.



Lizaso eta Aritz Lopategi Markoartun



Lehiaketa mundiala

Aurreko zenbakian agertu zen argazkia "Palacio encantado" esaten zioten jauregia zen. Etxe hura, orain dela 35 urte inguru eraitsi zen. A! ea non zegoen? Gaur egungo Cocherito eta Torre Gorostizaga kaleen artean, Telefonica dagoen lekuan, gutxi gorabehera. Eta jauregirik ez baina afaria irabazi duena hau da:



Aitor Atxurra Alcalde

Zorionak eta on dagizula janak eta kalterik ez edanak!

Oraingo honetan jauregitik lantegira jaitsiko gara, Organo fabrika batera hain zuzen ere. Badakizu non zegoen argazkiko fabrika hori?

Bai, ba bidali beheko txartela helbide honetara: **Berton aldizkaria, Pernet 9. 48004 Bilbo** edo, utz ezazu **Euskal Txokoaren txosnan** Santutxu jaietan.

NON ZEGOEN?

Boluetan, *El Mundoren* erredakzioaren inguruan.

Zurbaranen, Lezamako bide zaharraren hasieran.

Santutxun, Karmelo kalean.

Izen-abizenak:


Helbidea: Telefonoa:



ISALAND
PROIEKTU
ETA
ERREFORMAK
 Fika, 54 - Telefonoa: 94-4334781
 48006 Santutxu - BILBO

GOIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
 Pintura lanak etxaurre eta patioetan
 Ke-irteerak eta Ur-hodiak
 Eraikinetako edozein konponketa
ANDAMIO BARIK
 Telefonoa:
 (94) 669 32 79
 Mugikorra:
 908- 45 16 22

Zure publizitatea



MODULO 1
 2.220

3 MODULO
 6.600

4 MODULO
 8.800

2 MODULO
 4.400

6 MODULO
 ORRIALDE ERDIA
 4.400

**ORRIALDE OSOA, KONTRAZALA,
 BESTE MODULAZIO BATZUK, EDO
 INFORMAZIO GEHIAGORAKO**
 94 473 54 48

E J O N D E I Z U L A !

HOROSKOPOA

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra. Bai, urte osoa itzunda emon eta aste bitan dana galtzea gura dozu. Baina oin ezinezkoa da. Baina ez itxadon beste urtebete eta hasi ba hurrungo urterako gorputza zigortzen!

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra. Ondo dago Futbol Txapelketa ez jatzula gustaten, baina telebista lehioan behera botatzea be!

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra. Zuona ez da Viagragaz konpontzen! Badakizu, jo hemeti, horti... Irudimena bota egiozu eta eginda dago dana.

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra. Urtebetetzea datorrela eta zeure buruarentzat zer erosi pentsetan? Lasai, batzutan astuna zara baina jendeak oindik maite zaitu.

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra. Idiazabalgo gaztaia Kubako mulato bat da zure ondoan. Badakizu, krema potentea eroan. Edo ez, ez egin ezer. Urtero lez amaituko dozu, piper gorrien moduan.

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra. Mahatserriko politena zarala esatea gura dozu? Tira ba, animoa igoteko balio badau, esan dago. Eta lasaitu bizitza, mundua ez da horko izkinan amaitzen eta.

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra. Kontuz Santutxuko jaietan! Zergatik? Aaaaa! Etxeti urten barik jarraitzen badozu oin arte lez, ez dozu jakingo, eta bestela... Halandaze, urten behingoan!

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra. Atzo kolore diferenteko galtzerdiak, gaur zapatak... Despistatuago ezin lei ibili, baina kalean be, kontuz ea zer zapaltzen

Sagitarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra. Oingoan bai, azkenean baina bai. Eta zelan dakigun guk hori? Txo, txo, pekatuak bakarrik esaten leiz, pekatariak... baina bai, ez dozu urrun begitu behar, bera da-ta.

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra. Mexikora alde egiteko gogoia daukazula? Baina zer uste dozu, itsasoaren bestaldera joanda sentimenduak hemen itziko dozuzala ala?

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra. Gabonetako txanpana atara egizu behingoz! Baietz galdu aprobetxatu orduko! Lagunek ez deusue parkatuko oindik etxean dagoala dakienean.

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra. Begira, begira, begiak edo bera, bietako bat gastako da laster, edo biak, holan segidu ezkerro. Dio! Ez da holango gatxa pausu txiki bat emotea ba!

HIEROGLIFIKOA

Mr. -ter
IO
Asko
i

Zer da zure ahizpa?

AURREKO HILEKOAREN SOLUZIOA:

TABERNAN.

LETRA ZOPA

Topatu egizuz hamar hegatziren izenak.

A	I	A	S	P	I	L	A	L	E
H	K	A	R	R	E	P	E	P	X
A	A	O	N	A	R	R	A	N	I
T	N	M	L	I	S	T	K	I	E
E	O	R	U	L	N	R	A	A	E
A	T	S	E	P	K	T	I	Z	L
J	O	S	N	E	U	N	O	T	E
A	J	U	A	T	M	L	A	N	A
O	S	T	R	U	K	A	K	O	E
A	I	K	A	P	N	R	N	H	Z

Oharra: Aurreko zenbakian txarto eman genuen letrazoparen definizioa, Mahatserriko hamar kaleren izenak ipintzen zuen lekuan, Hamar kirolen izenak ipini behar zuen. Barkatu endredoak.



azala ilun baina begirada garden

DOINUA: Sarasua anaien fauna txikiko «Sciurus Mundanus»

EZIZENA: Zazpiki

1
Brasilen bizi dute pobrezi krudela hirietan badaude milaka «fabela» handik ehun metrotara luxuzko hotela edo aberats baten txaleta bestela kontatuko dizuet ikusi bezela:

5
Dolarren bat botatzen die jende gutxik gero eramateko dena lau nagusik eskua luzatuaz triste ta biluzik zapatilarik gabe gehienak oinutsik ahoan irrifar bat baina tripa hutsik.

9
Gehienek ahazten dute euren iragana bai euren jatorria izen zein izana kaleak eman die eguneko jana kalea bihurtu da eurentzat oihana bertan bilatzen dute ohea ta lana.

13
Umea ezta berriz bihar itzuliko urrun eraman dute gainera betiko pentsa gizalegea nola duten ito nahiz eta desagertu hamahiru mutiko egunkariak ezta ezer ekarriko.

2
Rio de Janeiroko edozein kaletan edozein urtarotan edo egunetan ume batzuk dabilta baloiaz olgetan euren idoloekin beti ametsetan idolo izateko egunen batetan.

6
Atzoko eguna da gaurkoan arkupe bihar biziko diren hain argi ez dute dirua daukazula jakingo balute bizia ere saldu egingo dizute markadun zapatila pare baten truke.

10
Sarritan hil ohi dira haur hauek gazterik droga ere probatu baitute gehiegik inork ezte eman bizitza hoberik honen atzean ezta beste gaitz tristerik gizarte ustel baten islada besterik.

14
Honelakoak daude adibide franko nahiz ta gaur eztitudan guztiak botako bertsoen bidez batzuk salatu beharko erruaren zati bat guk geuk dugulako jaio garen lekuan jaio garelako.

3
Handik ehun metrotara badaude gazte bi futbola ez tutenak atsegin gehiegi sarritan daudelako kolokatuegi drogan erori dira akaso goizegi baina kale hauetan dena da zilegi.

7
Azala ilun baina begirada garden izengabeko haurrak bizi dira hemen ez dutenak ikasi maitasuna zer den bizitza, ezagutzen dutenak ondoen gizon egin direnak haur izan baino lehen.

11
Umeak biltzen dira gaua pasatzeko eskudroi beltzengandik ihes egiteko polizi ustelduek dolarren menpeko aginduak betetzen dituzte ederto turistentzat kaleak garbi mantentzeko.

Arkaitz Estiballes
Santutxuko Bertso
Eskola

4
Haur kozkorrez beterik kaleen baztarrak aterperik ez tuten arima bakarrak fikzioa ez tiren gosezko negarrak eskuak zabal zabal ahuldurik indarrak jainkoari eskertuz turisten dolarrak.

8
Sarritan poliziak atxilotzen ditu eragotziaz hainbat ustezko delitu legearen babesik ez tute aurkitu hitz horren esanahia ezin entenditu ta ulertzen eztena zertako kunplitu.

12
Gaur gauez gelditu da ume bat aparte lagunengana doa korrika jotake parean Mercedes bat jarri zaion arte kotxea gelditu da zabalduz bi ate umea hartu eta urrun daramate.